

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BILARKO UDALA

Bilarko Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren jakinarazpen kolektiboa jendaurrean jartzea eta kobratzeko aldia, 2021eko ekitaldiari dagokiona

I. Jendaurrean jartzea

Bilarko ekitaldiko Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari dagokion 2021eko kontribuzio errolda egin ondoren, errolda hori onartu egin da alkatearen apirilaren 16ko 16/2021 Ebazpenaren bidez.

Errolda jendaurrean egongo da hamabost egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eragindako zergadunek errolda aztertu eta, hala badagokio, egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak egin ahal izateko. Interesa dutenek espedientea udal bulegoetan aztertu ahal izango dute.

Erroldak eta haiei erantsitako likidazioak onesten dituen egintzaren aurka berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio hura ebazteko eskumena duen organoari, hilabeteko epean, haiek jendaurrean jarri eta hurrengo egunetik aurrera.

II. Kobratzeko aldia

Borondatezko aldiko dirubilketa epea bi hilabetekoa izango da; hain zuzen ere, 2021eko ekainaren 1etik 2021eko abuztuaren 1era.

Borondatezko aldian ordaintzeko epea amaiturik, ordaindu ez diren kuotetarako, betearazteko aldia hasiko da berez eta besterik gabe. Horrek berekin ekarriko du berandutze interesak eta dagozkien erreklarguak eskatzea, Zergen 6/2005 Foru Arau Orokorrek 26. eta 28. artikuluetan ezarritakoaren arabera, bai eta premiamendu prozeduraren kostuak ere, bidezko denean.

Bankuetan helbideratutako ordainketetarako, zergapekoek ez dute inolako izapiderik egin behar; zordunketa 2021eko ekainaren 1ean egingo zaie.

Helbideratu gabeko ordainketetarako, zergadunei udalaren bulegoetan entregatuko zaie ordainagiria jendea hartzeko orduetan, udalak Kutxabanken edo Euskadiko Kutxan duen konturen batean ordain dezaten, dirutan edo transferentzia bidez.

Zergadunei ohartarazten zaie komenigarria dela beren zerga zorrak banketxe edo kutxetan helbideratuta izatea. Halaber, nola banku helbideratzeetako altak edo aldaketak, hala hurrengo jakinarazpenetarako helbide aldaketak, Bilarko Udalean izapidetu behar dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Bilar, 2021eko apirilaren 22a

Alkatea
ENRIQUE PÉREZ MAZO